

DIRU-SARREREN FLUXUAK

Gure enpresaren sarrera-iturriak askotarikoak dira, baina zalantzarik gabe, gure ikastaroen salmenta izango da diru-sarrereren iturri nagusia.



Kalkulatu dugu gure enpresak 99.001,74 euroko kostua izango duela lehen urtean. Hala ere, kostu horiek guztiak ez dira urtero errepikatuko; izan ere, aktibo batzuk behin bakarrik erosiko ditugu, mugigarriaren erosketan (10.220,34 €), sozietate mugatua sortzeko behar den kupoan (3.005,06 €) eta publizitatea inbertitutakoa (1.123,2 €). Guztira 14.348,6 €. Horrek esan nahi du urteko gastuak 84.653,14 €-koak direla, eta hileko gastuak, berriz, 7.054,43 €-koak.

Guk, enpresaren jabeok, 15.000 € **aurreztuak** ditugu guztion artean. Bakoitzak bere lan zaharrean zuen soldatetik aurreztuta eta bakoitzaren senideen laguntza ekonomikoarekin lortzen joan den diru hori jarriko du. Andreak eta Erikek esperientzia dute sektorean, irakasle gisa lan egin dutelako, Eneko informatikaria zen ordenagailu enpresa batean, Sergiok kontulari gisa lan egin du bere lan bizitza osoan eta Borjak hainbat lan izan ditu, baina beti publikoari begira. Horrek esan nahi du esperientzia dugula sektorean eta nahikoa aurrezki altzarien faktura (10.220,34 €), Sozietate Mugatua sortzeko ordaindu beharrekoa (3.005,06 €) eta publizitatean inbertitutakoa (1.123,2 €) ordaintzeko. Lehenengo urtea ondoren, enpresaren publizitatea sare sozialen bidez egingo genukeelako. Horrela, 84.653,14 €-ko gastuak estaltzeke daude oraindik.

Bestalde, **crowdfunding** bat sortuko dugu dirua biltzeko, betirako irekita utziko genukeena. Diru-iturri hori oso ezaguna da; gainera, mota guztietako helburuetarako erabili da, hala nola disko bat grabatzeko edo negozio bat hasteko. Gure helburua webgunearen domeinua (14,90 €) eta bulego materialaren faktura (884,26 €) ordaintzeko adina biltzea litzateke. Horrela, 83.753,98 €-ko gastuak estaltzeke daude oraindik.



Bestalde, **bi mailegu** eskatuko genituzke. Lehenengoa, 15.000 €-ko mailegua **Bankia**ri eskatuko genuke, 60 hilabeteetan itzuli beharrekoak, hau da, bost urtetan eta 4.344,44 € interesak izaten, hilabetero 322,41 € ordaindu beharko genuke Bigarrena eta azkena, 10.000 €-ko mailegua **Santander** bankuari eskatuko genuke, 72 hilabeteetan itzuli beharrekoak, hau da, sei urtetan. Lehenengo urtean, hilabetero 168,25€ ordaindu beharko genuke, baina hurrengo urtearen lehenengo hilabetetik aurrera, hilabetero 171,31€ ordainduko genuke.

Geratzen den diru guztia enpresaren funtsezko jardueraren bidez lortuko dugu: **ikastaroen salmenta**. Ikastaro bakoitzaren oinarrizko prezioa 25,95 €-koa da, inolako harpidetzarik gabe, eta ikastaro bereziak, hala nola unibertsitateetatik, enpresetatik eta erakundeetatik bidalitakoak hitzaldiak, 50 €-koak dira. Erabiltzaileek gure enpresan harpidetza normala egitea erabakitzen badute, hilean 15 € ordaindu beharko dituzte, 20,95 € erosten duten ikastaro bakoitzeko eta 40 € ikastaro bereziengatik. Baina premium kontuarekin harpidetuz gero, hilean 25 € ordainduko lituzkete, eta 15,95 € erosten duten ikastaro bakoitzeko eta 30 € ikastaro bereziengatik. Gainera, webgunetik ikus-entzunezko edukia berriro ere erreproduzitzen duen bakoitzean, erreproduzio bakoitzeko 0,10 €-ko gastua gehituko zaio, ikastaroaren prezioan.

Enpresa errentagarria den ikusteko hilabete batean izango liratekeen estimazioak egin ditugu. Gure bezero asko erretiratuak direnez edo hirugarren adinekoengandik gertu daudenez, 40 ikastaro presentzial arrunt inguru egongo direla uste dugu, 1.038 € sortuz. Gainerako bezeroek harpidetza komuna edo premium bat lortuko dute. Lehenengo hilabetean, kalkulatu dugu 30 pertsona harpidetza arruntarekin harpidetuko direla eta 15 pertsona premium harpidetzarekin, eta bakoitzak 450 € sortuko dituela, hau da, 375 € guztira. Halaber, harpidetza arruntaren bidez abonatuak 50 pertsonak ikastaroak lehen hilabetean kontsumitzen dituztela uste dugu (batzuek ikastaroa errepikatuko dute), eta premium harpidetzaren bidez abonatuak 60 pertsonak kontsumitzen dituztela, 1.047,5 € eta 957 € sortuz ordena horretan.

Gainera, lehen hilabetean, hiru hitzaldi berezi emango ditugu gonbidatu batzuekin. Hitzaldi bakoitzean, 35 pertsona egongo dira gehienez, eta pertsonak lehenetsuna izango dutenez harpidetza motaren arabera, plaza horiek banatu ditugu. Hitzaldi bakoitzean, honela banatuko dira plazak: 20 premium harpidetza duten abonatuak (600 € sortzen dituzte), 10 harpidetza arrunteko abonatuak (400 € sortzen dituzte) eta 5 abonatu ez direnei (250 € sortzen dituzte). Guztira, hilean 7.623,5 € irabaziko genituzke eta urtean, 91.482 €.